

Ordizian, **bi mila eta zortziko martxoaren hamalau**ean UDALBATZARRAK APARTEKO BILERA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañoñ Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Iñigo Manrique Cía	PP	taldea

**BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
------------------------	-----	--------

**Behin-behineko IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETARIA:**

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



## **BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

.- Alejandra Iturrioz Unzueta atera egin zen bileratik 3.puntuari.

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2008ko urtarrilaren 31an Osoko Bilkurak egindako ohiko bilkuraren agiria onartzea.  
..... 3.orria
- 2.- 2008ko otsailaren 11ko bilkura bereziaren akta onartu.  
..... 5.orria
- 3.- 2008ko ekitaldirako udal aurrekontua.  
..... 4.orria
- 4.- 2008erako Plantila organikoa.  
..... 7.orria
- 5.- 2008rako lanpostuen zerrenda.  
..... 9.orria
- 6.- 2007ko gastuak 2008ko aurrekontuan sartzeko eta kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu.  
..... 9.orria
- 7.- IKENGU 05 S.L.rekin hitzarmena  
..... 9.orria
- 8.- Oiangurengo emakidaren hipotekarako baimena.  
..... 9.orria

### **AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:**

## **GORABEHERAK**

## **GALDE-ERREGUAK**

## **ORDUTEGIA:**

HASIERA: 8,00 etan

AMAIERA: 9,40etan



Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanaz.

### **1.-2008ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

#### **2008ko urtarrilaren 31ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: bat ere ez.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.- 2008 ko otsailaren 11ko bilkura bereziaren akta onartu.**

#### Proposamena

#### **2008ko otsailaren 11 bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



## Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: bat ere ez.

## Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- 2008ko ekitaldirako aurrekontua.**

#### Proposamena

Plenorako Gaiari Batzordeak, 2008ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion Alkateak idatzitako Aurrekontu-proiektuari eta Osoko Bilkurari proposatzen zaio honako hau onartzea

AKORDIO PROIEKTUA.

**Alkateak proposatu eta idatzitako 2008rako Aurrekontu Proiektua onartu, kapitulukako honako laburpenaren arabera:**

**Plenorako Gaiari Batzordeak, 2008ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion Alkateak idatzitako Aurrekontu-proiektuari eta Osoko Bilkurari proposatzen zaio honako hau onartzea**

#### SARRERAK

1 ATALBURUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	1.924.800
2	Zeharkako zergak	537.500



3	Tasa eta beste sarrera batzuk	2.908.524
4	Transferentzia arruntak	7.562.645
5	Ondare-sarrerak	98.300
6	Besterenganatzeagatiko benetako inbertsioak	4.924.758
7	Kapital transferentziak	525.000
8	Finantza-aktiboen aldaketa	45.000
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	1.328.875
<b>GUZTIRA</b>		<b>19.855.402</b>

### GASTUAK

ATALBURUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.155.546
2	Higiezin arruntak eta zerbitzukoak erosteko	6.047.878
3	INTERESAK	261.565
4	Transferentzia arruntak	1.408.388
6	Benetako inbertsioa	3.933.037
7	Kapital transferentziak	218.500
8	Finantza-aktiboen aldaketa	406.818
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	3.423.670
<b>GUZTIRA</b>		<b>19.855.402</b>

Honako Aurrekontu hauen osaketak ematen du hori guztia:

### KORPORAZIOAREN BEREZKO AURREKONTUA,

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap:-	1.924.800	1.kap:-	3.109.815
2.kap:-	537.500	2.kap:-	3.406.415
3.kap:-	1.569.700	3.kap:-	252.350
4.kap:-	6.361.100	4.kap:-	2.423.063
5.kap:-	86.900		
6.kap:-	0.-	6.kap:-	1.585.005
7.kap:-	525.000	7.kap:-	218.500
8.kap:-	71.300	8.kap:-	73.400
9.kap:-	522.718	9.kap:-	530.470
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.599.018</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>11.599.018</b>

### SAN JOSE EGOITZAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	812.821



2.kap.		2.kap:-	1.662.653
3.kap:-	840.524	3.kap.	
4.kap:-	1.631.850	4.kap.	
5.kap:-	3.100		
6.kap.		6.kap.	
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap.	
9.kap.		9.kap.	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.475.474</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.475.474</b>

### HERRI ANTZOKIAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap-	72.060
2.kap.		2.kap-	69.320
3.kap-	48.000	3.kap-	50
4.kap-	86.430	4.kap.	
5.kap-	7.000		
6.kap.		6.kap.	
7.kap.		7.kap.	
6.kap.		8.kap.	
9.kap.		9.kap.	
<b>GUZTIRA</b>	<b>141.430</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>141.430</b>

### MAJORI KIROLDEGIAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap-	160.850
2.kap.		2.kap.	751.140
3.kap-	450.300	3.kap-	7.950
4.kap-	564.028	4.kap-	66.088
5.kap-	8.800		
6.kap.		6.kap-	36.000
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap.	
9.kap-	28.400	9.kap-	29.500
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.051.528</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.051.528</b>

### ORDIZIA LANTZEN SAREN BEHIN BEHINEKO BALANZEA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.-kap.	
2.kap.		2.kap.	158.350



3.kap.		3.kap.	8.715
4.kap.		4.kap.	
5.kap.			
6.kap.	4.924.758	6.kap.	2.312.032
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap.	361.818
9.kap.	806.157	9.kap.	2.890.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.730.915</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>5.730.915</b>

Honako Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua onartu:

### 2008KO AURREKONTUA EGITEKO OINARRIAK

1.- 2008ko ekitaldi ekonomikoan, Ordiziako Udalak aurrekontuko hasierako kredituen kopuru osoko %1erainoko abalak mailega ditzake. Erakunde Autonomoek ezingo dute bermerik eman, ezta hirugarrenen aurreko edozein izaerako garantiarik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko partida hauek, handitzeko moduko izaera dute, bakoitzari ematen zaion finantziazioaren arabera.

<u>Gastuak</u>	<u>Sarrerak</u>
Herri-zergak kudeatzeko kostua, Aldundia.	Sarrerak . Kontzeptuak 112.01, 112.02, Foru 130.01 Eta 130.02.
Derrigorrezko dirubilk.kontratua Ibilgailuak kentzeko	392.01 eta 393.01 kontzept. sarrerak Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak.
Bide-seinaleak mantentzeko (pilonak)	Aberiak sortzen dituztenen sarrerak

Alkatezaren dekretu bidez egingo da kreditua handitzeko espedientearen onarpena.

3.- Funtzio-talde bereko barruan egin behar diren kreditu-aldaketak, arloko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu eta Alkateak egindako dekretuz.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu transferentziak Osoko Bilkurari dagozkie.

Inbertsioetarako kredituak murrizteko balio duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da.

Gai horretan, Alkate anderearentzako zehaztutako eskumen berak izango dituzte Erakunde Autonomoetako lehendakariak.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako gastuei erreparatuko dio: Baimenduan (A) edo Xedatutakoan (D) abenduaren 31an zegoena. Alkateari dagokio Espedientea onartzea

5.- Bata bestea gehituz gero, aurrekontuaren %5a baino igoera ez den kopurua onar dezake Alkateak kreditu gehigarrien espedienteetan.



6.- 833.121.00.01 partidaren (Langileentzako maileguak) kreditua erabiltzeko, aurrez interesatuek eskatu beharko dute, proposatzen duten gastuaren beharra eta aurrekontua arrazoiturik. Ogasun delegazioak mailegua ematea komeni den ala ez iritziko du, eta aldekoa bada, Alkatetzaren dekretu bidez betearaziko da.

7.- Dedikazio osoko kargudun politikoen ordainsariak, Udaleko langileen ordainsariak igotzen diren neurri berean igoko dira.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, dagozkion gastu-partidetan kopuru bereko gastu-kredituak jarriko dira. Horiek jartzekok Alkate anderearen baimena beharko da.

9.- Honako hauen gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzeko.
- Kanpoko lanak kontratatzeko.
- Mantenukoak bakarrik ez diren lanak udal zerbitzuek egitea.
- Inbetariagarria den materiala erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde aurretiko onarpena eskatuko da, aurrez Kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da.

Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldiaraziko da gastu-espeditatearen tramitazioa.

Aipatutako gastuei dagozkien fakturak, dagokion Delegaziora eramango dira, oniritzia jasotzeko.

10.- 2 hilabete behin Kontu-hartzaileak aurrekontu partiden egoeraren berri emango dien Delegazioetako arduradunei, eta behar diren neurriak hartu beharko dira onartutako kreditua ez gainditzeko.

Dagoen kreditua behar adinakoa ez dela uste bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren behar berriak daudelako, dagokion Delegazioak kreditu osagarria ematea proposatuko du; horretarako dagoen finantziazioa proposatuz edo kreditu-soberakina erabiltzeko eskatuz, balego.

11.- Dietak.- Alkate eta Zinegotziek, eta Udal langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere Udal kompetentziako gaiak gestionatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du izan.

Gastu horien kopuruak honako hauek izango dira:

Norberaren ibilgailuan Autonomia Erkidego barruko joan-etorria, 0,29 euro/km

Gosaria : 6.- euro, bazkaria : 16.- euro, afaria : 16.euro

Lojamendua: 3 izarreko ostatua.

Ikastaro edo azoketara joanez gero, bazkari, afari eta lojamenduetarako ezarritako mugak erabiliko dira. Erakunde arteko harremanengatik horiek baino gastu handiak egin behar direnean bakarrik estaliko ditu Udalak, baina aurrez dagozkion fakturak ekarri beharko dira.





12.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan buruzagi, funtzionario edo Korporazio kideek behar ez diren ordainketak itzultzeko ardura izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera.

Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erru edo arduragabekeria larriagatik legezadapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela era, gastu eta ordainketen agintariak eta Kontu-hartzaileak desegokia dela idatziz ohartarazten ez duen bitartean, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, 360,- euro baino gutxiago balio dutenean, hala era, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du inolako eskumenik inoren esku utzita, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.artikuluan ezarritakoak ditu bere esku.

15.- Honako hauek izango dira kredituen lotura juridikoen mailak:

Programa funtzionala eta kontzeptua:

Transferentzia arruntak eta kapitalekoak

Benetako inbertsioa

Aktibo finantzarioen aldaketa.

Funtzio-programa eta kapitulua:

2 kapitulua

Finantza-gastuak

Pasibo finantzarioen aldaketa

Langile gastuei dagokion kapitulua

2 kapituluko partida askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta partida askotako kredituak agortu ez daitezzen (kredituen lotura juridikoaren mailak estu-estu aplikatuta), kontuhartzaitzaren kontrola 2007ko azarora arte egingo da aurrekontu-partidan.

Gainera, honako partida hauei urte osoan jarraipen banakatua egingo zaie, nahiz eta azkenean artikuluhonen hasieran ezarritako kredituen lotura juridikoko mailak aplikatu.

#### **PARTIDA**

#### **IZENA**

226.111.00.02

Protokoloko ekintzak, Gobernu organoak.

231.111.00.01

Dietak, joan-etorriak, Gobernu organoak.

213.222.11.01

Udaltzaingoko ibilgailuak mantentzeko.

210.222.12.01

Trafikoko bide-seinaleak mantentzeko.

211.422.12.01

Eraikinen mantenua, Urdaneta ikastetxea

212.422.12.01

Makina,lanabes eta tresnak mant. Urdaneta :

227.432.10.07

Hirigintzako estudio teknikoak.

212.433.00.01

Makina,lanabes eta tresnak mant., kale argiteria



212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategiak mantentzeko. Parke eta lorategiak
212.441.10.01	Makina, lanabes eta tresnak mant., Urak
210.441.20.01	Makina, lanabes eta tresnak mant., Saneamendua
226.451.10.99	Kultur ekintzak.
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal Jaiak. Beste ospakizun batzuk.
226.454.12.99	Euskal Jaiak. Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak.
226.454.13.99	Eguberria.
210.511.00.01	Kaleak mantentzeko.
226.622.31.91	“Artzain Eguna” feria.
226.622.31.92	Erdi Aroko feria
226.622.31.97	Ardoaren azoka.
226.622.31.99	Eguberriko feria berezia.

16.- Ordainketak Ordainketak egiteko ohiko metodoa bankuko transferentzia izango da. Udal Kontu-hartzailetzan faktura sartzen denetik 60 egun baino lehen ordainduko dira, aurrez ordaintzeko oniritzia edo adostasuna badute.

17.- 2007ko maiatzaren 10eko bilkuran Udal Osoko Bilkurak urte anitzeko gastua onartzea erabaki zuen, 3 urtekoa, Ordiziako toponimia bildu eta finkatzeko eta honako gastu-banaketa honekin:  
2007: beka + Euskaltzaindia (15.200 euro)  
2008 urtea 20.199,85  
2009 urtea 20.788,19  
500/1990 Errege Dekretuko 83.1 artikulua araberaz jasotzen da oinarri hauekin.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Txurruka jauna

Aurrekontuko datu garrantzitsuetan azalpen laburra egin du.

Gastu arruntetan: 9.722.000.-€ guztira, horrek %11,76ko igoera ekarriko luke 2007koarekiko.

Sarrera arruntak 10.480.000.-€ guztira, horren %11ko igoera ekarriko luke 2007koarekiko.

Baliabide arrunten soberakina, 784.000.-€ da sarrera arrunten %7,4.

Sarrera eta gastuak direla eta, Txurruka jaunak hiru puntualizazio egin ditu:



## . Sarrerak

- 1.- %46a Foru Fondotik dator.
- 2.- Ondasun Higiezinaren zerga, ibilgailuena, ura eta zaborrean guztira 2.485.000.-€.
- 3.- Aurreko bi puentuek sarreraren %80a da.

## . Gastuak

Gutxi gorabehera 5 milioi euroko zorra dugu eta interesak eta mailegu horren amortizazioa, Udalaren lehen gastua da, 1 kapitulua kenduta.

Gizarte Ongizateko alorrean gastua da bigarren gastu garrantzitsua, %17,6 da.

100€ tik %17,6koa gastatzen dugu Gizarte Ongizatean.

Inbertsioak direla eta, kopurua 1.800.000.-€ da, iaz baino 500.000.-€ gehiago.

Iaz 141.-€ inbertitu ziren herritarrekiko eta aurten 183.-€ inbertituko dira herritarrekiko.

Hainbat diru laguntza dago. Garrantzitsuenak aipatu ditu.

### Alkate jna.

Aurrekontuaren alde garrantzitsuenak aipatu ditu.

Hezkuntzan ikastetxeei emateko diru laguntzako partida garrantzizkoak daude.

Kiroletan, gainera, Majori Kiroldegiko galerei aurre egiteko diru laguntza garrantzitsuak jasotzen dira.

Gobernu organoetan 2 pertsona hartu dira denboraldi baterako. Infomiazio/komunikazio teknikaria eta laguntzaile bat.

San Jose egoitzari 439.000.-€ ematen zaizkio, defizitari aurre egiteko, bere aurrekontuko %30a, hain zuzen.

Gizarte arloaren barruan, gainera, kale heziketa aipatzen du, guraso/eskola, Mendekotasun Legea garatzeko gizarte langilearen kontratazioa.

Agenda XXIaren barruan, garatzeko enpresa bat kontratatuko da.

Kulturaren Hiri Hezitzaile proiektua.

Euskaran, EBPnaren onarpena datozen hurrengo 4 urterako.

Feria eta jaialdietan, Artzain Eguna, eta abar.



Inbertsioetan, 1,8 milioi euro, gehi 2007an gastatu ez ziren 2.500.000.-€.

Udaletxea,  
Herri guneko almendraren urbanizazioa.  
Eguneko zentroa:  
Urdaneta eskola: Gimnasioa, patioa estaltzea...  
P21: emakidadunei diru laguntza  
Dorrea (teilatuko obrak)  
Villa Eugenia-bidea: 100.000.-€ bukatzeko.

### Dubreuil jna.

Amaitzen ari den negu hau bereziki tragikoa izan da herritar guztiontzat. ETAk gure kide Isaias Carrasco hiltzean hondamendia eragin du haren familian, haren lagunartean, haren alderdikideen artean, demokrata guztiengan, oro har. Berniz ere gogorarazi digu, oso modu gordinean gogorarazi ere, gizakiaren alderdirik okerrrena: intolerantziarena, fanatismoarena, giza eskubide oinarrikoenarekiko – bizitzarekiko- errespetu faltarena.

Honenbestez, bilkura hau hasi baino lehen, nire lehenengo hitzek nahitaez izan behar dute doluminak eta elkartasuna adierazteko isaiasen senide, lagun eta kideei, eta oro har terrorismoaren biktima guztier senide, lagun eta kideei. Era berean, nire laguntza guztia eskaini behar diet ETArekiko aurkako borrokan eta ETAk gure gizartean sortzen dituen kaiteak konpontzeko lanetan aritzen diren Erakundeei.

Azken garaletako alderdinik atseginena gure talde politikoak hauteskundeetan lortutako emaitza positibo eta historikoa da. Emaitza horien arrazoiak konplexuak ez ezik, askotarikoak dira. Baina hau ez da haiek aztertzeke unerik egokiena. Une honetan, guri botoa eman diguten ordiziar guztiei beren laguntza eta konfiantza emateagatik esker ona adierazi behar diet. Beraz, bihotz-bihotzez eskerrak emateaz gain, iragarri nahi diet ahaleginduko garela gugan jarri duten itzaropen guztia ez zapuzten.

Eta elkartasuna eta esker ona adierazteko sarrera honen ondoren, nire parte-hartzea hasiko dut, eta aldi berean iragarri nahi dizuet Ordizianekiko konfiantzaz, segurtasunez eta ilusioz betenk natorrela, eta erabat sinetsita 2008. urtea aurrekoa baino hobea izango dela ordiziarrentzat.

Izan ere, Ordizia egunero hazten eta etengabeko modernizazio prozesu batean eta barne eraikuntzan zein kanpo proiektzioan pixkanaka aurrera egiten ari den izaki bizidun bat dela nabaritzen eta sentitzen dugun guztiok, Osoko Bilkura honetan, 2008. urterako Aurrekontu honetan, aukera paregabea ikusi behar dugu etorkizunerako bideak irekitzeko eta ordiziarrei ilusioa emateko eta beren itzaropen guztiak betearazteko; etxebizitzarako aukera berri eta zabalak eskainiz, gure adineko pertsonen artean berezia jarritz, gure adin txikikoei eta zailtasun bereziak edo mendekotasunak dituztenei, etab. laguntza berezia emanez...

Gustura geratu naiz oro har aurrekontuekin, eta espero dut ordiziar guztiak ere halaxe egotea ezagutzen dituztenean. Horrek ez du esan nahi noiz ere bentan goxo gelditzeko asmoa dudarik.



Badira zailtasunak, eta badira gauzak guztiz gogobetetzen ez nautenak, baina, orokorrean, Ordiziarako aurrekontu honen balantzea positiboa da, inondik ere.

Hiru zentzutan da positiboa: ordiziarren beharrei erantzuten diela uste dugulako, EAJk, EAK eta PSEk lortutako akordioei erantzuten dielako, eta bat datorrelako neurri handi batean PSEk azken foru eta uda hauteskundeetan aurkeztu zuen programarekin.

Guretzat, erronka ez ezik, konpromisoa da hauteskunde horietan aurkeztu genuen programa eta 800 ordiziar baino gehiagok bozkatu zutena betearaztea.

Hortaz, aurrekontu hau erronka eta konpromiso horiei urte askoan emandako lehen erantzuna da.

PSE-EEkoek esan genuen, eta hala islatu zen gobernu akordioan, mendekotasun legea gestionatuko genuela. Eta halaxe egiteko asmoa dugu, eta egiten ari gara jada, hain lege garrantzitsuak eskatzen duen kalitate guztiarekin, gainera. Horretarako, Gizarte Langile berrak eta Administrazio bat kontratatatu ditugu aurten, eta horrelaxe gauzatu dugu aurrekontuetan. Ahaiegin handia, zaiantzarik gabe.

Eguneko Zentro bat martxan jarriko genuela esan genuen. Eta aurrekontu honetan horretarako beharrezkoa den inbertsioa jaso dugu. Izan dugun atzerapenaren arrazoia izan da, besteak beste, hasiera batean aurreikusitakoa baino plaza gehiago izango dituela Eguneko Zentroak, eta kokapenaren inguruko zalantzak genituela. Hala ere, proiektua idazteko beharrezkoak diren urratsak egiten ari gara, eta espero dugu Eguneko Zentro hori urteko azken hiruhilekoan prest egotea.

Irisgarritasun plana egingo genuela esan genuen... Eta horretarako lehen pausoak ere eman ditugu. Halaber, hala behar duten ordiziarrei, bizi diren eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko laguntzak agindu genituen... Eta dagoeneko % 40an handitu dugu horretarako aurrekontu-saila, eta 42.000 € ditu jada.

Esan genuen Gurasoen Eskolako programa egonkortuko genuela... eta halaxe egingo dugu aurrekontu hauetan. Era berean, "Seme-Alabak" aldizkaria egonkortu dugu. Halaber, Kale Heziketa programa bat jarri dugu martxan (60.000 €)...

Gure adinekoei lehentasuna emango genitela agindu genuen... Eta horretan ari gara jada; Eguneko Zentronako eta Mendekotasun Legearen gestioarekin eta, horrez gain, lanaren antolakuntza berrak eta Norberaren Autonomiaren Sustapenerako eta Gizarte Hezkuntzaren eremuan Mendekotasunaren Prebentziorako aurrekontu handiagoarekin (6.000 €)... Gizarte Hezkuntzaren aurrekontu-saila % 130ean edo gehiagoan handitu dugu. Hau da, 6.600 €-tik 15.800 €-ra pasatu gara. Dudanik gabe, arlo honetan, alegia, adinekoentzako poitikan, hobekuntza handiak izango ditugu datozen urteetan.

Esan genuen plan sektorialak osatuko genituela; esaterako, Haurtzarorako eta Nerabegarorako Plan bat. Zirriborroa osatu dugu dagoeneko, eta udal teknikariak aztertzen ari dira. Ondoren, gizarte eragileen aurrean aurkeztu eta azkenik onartuko dugu. Bertan, hainbat programa, egitasmo eta ekintza aurreikusten dira... Haietako batzuk oso garrantzitsuak dira eta aurrekontu honetan txertatuta daude (Kale Hezkuntza, Gurasoen Eskola, Seme-Alabak Aldizkaria, arriskuan dauden adingabeen familiekiko Eskuhartzeak, familientzako laguntzak, etxeko laguntza...). Beste batzuk pixkanaka txertatuko ditugu urte honetan eta agintaldi osoan zehar, hala nola Eusko Jaurlaritzarekiko Hitzarmena adingabe arauhaulei lan komunitarioak bezalako neurriak ezartzeko, adingabeekin lan egiten duten eragileek



parte hartzeko bideak antolatu...).

Agindu genuen baita ere informazio-komunikazioani tratamendu berezia emango geniola. Udalak informazio gehiago eta hobe ematea nahi genuen, hanen iana komunikatzea... Eta aurrekontu honetan hauteskundeetako eta udal gobernuaren konpromiso hori jasota dago. Gai horretan lanean ari den Teknikari bat kontratatu dugu horretarako. Zentzu honetan, hamabost egunean behin egiten ditugun prentsaurrekoek hedabideekiko harremana hobetu dute, eta pixkanaka-pixkanaka lan horren fruituak ikusiko ditugu.

Herritarren parte-hartzea bultzatuko genuela esan genuen. Bada, Ordezkaritza honi osatu dugu, eta gure zinegotzietako bat lan horretan ari da. Urrats garrantzitsuak egin ditugu. Alde batetik, 115.665 €-ko aurrekontu-sail berna dugu. Bestalde, horretan laguntzeko Administrazio bat kontratatu dugu... Aurrekontu garrantzitsuak ditugu talde eta elkarteak sustatzeko, esate baterako, urteroko Boluntariotzaren Ferian, diru-laguntzetarako aurrekontu-sail berriaren bidez, etab.

Urrats handiak dira, inondik ere. Eta gainera beharrezkoak ziren. Konpromiso hori azaldu genuen gure hauteskunde programan, eta Gobernu Akordioetan islatu ziren... Orain, aurrekontuan txertatuta daude.

Aurrekontu aurreratuak eta aurrerakoiak dira, eta oso egokiak, gure ustez. Horregatik, gure botoa, Ordiziako PSE-EE (PSOE) alderdiaren botoa, haien aldekoa izango da.

### Maiza anderea

Gobernu-taldeko hiru alderdiek adostutako aurrekontua dela esan du. Aurrekontu sozialak eta herrarrengandik hurbil daudenak direla esaten denean, ados da.

Etxe bat eraikitzen hasten da lehenik, gero aitzaniekin hornitzeko, etxeari berotasuna ematen diotelarik, hori bezala, aurreko urteetan lehen inbertsioak egin dira eta orain, herritarrek eroso sentitu behar dute etxe horretan.

Euskaran departamentua sendotu behar dela uste du, eta teknikari bakoitzari dagokion sailkapena edo taldea eman behar zaiola.

Orain arte, departamentuka lan egiteko ohitura izan dela esan du, eta espero du Hiri Hezitzaile proiektuarekin, zeharka lan egiteko ohitura jartzen lagunduko duela, arlo desberdinen arteko koordinazioa lantzen.

Hezkuntzan, esfortzu handiak egin dira, kaitateko hezkuntza ematen segitzeko.

### Manrique jna.

Azaldu duenez, kontrakoa botoa emango du, salba ezina den oztopo bat dagoelako: Udalbide. Ordiziarren interesak alde batera uztea dakar horrek, denon adostasunik ez duen zerbaiten alde egiten delako eta zatiketa dakarrelako.



### Galparsoro anderea

Arau Subsidiarioen lanei noiz ekin behar zaion galdetu du. Aldi berean, Agenda 2lerako kontraturiko enpresak ze lan egin behar duen galdetu du.

### Asenjo jna.

Agenda 21eko lanak eta aurreikuspenak burutu behar dituela enantzun dio.

### Galparsoro anderea

Ingurumen aldetik, herren geratzen dina, bere ustez, aurrekontu hauek.

Une honetan 2 proiektu handi daude Ordizian: Oianguren eta AHT. Nork egin behar du bi ekintza horien jarraipena? Ingurumeneko teknikari bat kontratatzea proposatu da.

Urbanizagarriak ez diren lur-zoruetan, lan gehiago egin beharko litzateke ditugun ondasunak zein diren jakiteko eta horietan lan egiteko.

Etxebizitza izan daitezkeen lokalen inbentarioa egitea eskatu du, espekulazioa saihesteko.

### Leunda jna.

Aurkeztutako emendakinak gai txiki eta puntualetan bakarnik hartu dira kontuan, bere ustez. Sikiera, gobernu taldeak horiek aztertzeke egin duen esfortzua aitortzen du.

Azkenik, esan du, batzutan tontotzat hartzen dituztela bere taldeak eta horrek min ematen duela. Beraien proposamenei ematen zaizkien erantzunak egiazkoak izan beharko liratekeela uste du. Aurrekontuen aurkako botoa emango dute.

### Alkate na.

Manrique jaunari esan dio, kontrako botoak baino tristura handiagoa ematen diola arrazoiak.

EB/BERDEAK/ARALAR alderdiari, berriz, ingurumen gaiari garrantzi handiegia ematen diola.

Eusko Jaurlaritzak egingo du AHTren jarraipena.

Lokalak etxebizitza bihurtzeko plana dela eta, behar den aholkularitza izango dugu.

Ez du uste, edo hori ez da bere asmoa, koalizio horretako kideak tontotzat hartzea.

### Asenjo jna.

Aurrekontu garrantzitsuak direla uste du. Ingurumen teknikaria kontratatzeari dagokionez, EUDELen aholkuak 10.000 biztanletik gorako herrientzat direla.



Agenda XXIaren barruan, garatzeko enpresa bat kontratatuko da. Zerbitzu eta Agenda 21etik aztertuko dira ingurumenarekin zerrikusia duten ekintzak.

#### Galparsoro and.

Ingurumen teknikaria kontratatu duten herriak aipatu ditu. Aholku bat, gainera, aholku bat dela dio, baina geno, herniak berak duen borondatea dago, honi bunutzeko borondatea.

#### Dubreuil jna.

Manrique jaunak dio atentzioa deitzen diola Udalbiderentzako partida, 7.600.-€ko partida, Ibarretxe plana bihurtzen duela aurrekontua. Aurrekontu sozialak direla uste du.

#### Manrique jna.

Kantitate arazoa ez baizik, gertaera dela. Esandakoa berretsi du.

#### Alkate jna.

Ilusioz eta herritarrekin pentsatutako aurrekontua dela esan du.

#### Leunda jna.

19 emendakin aurkeztu dituztela esan du, eta 3 besterik ez direla kontuan hartu. EB/Aralarren botoa jasotzeko behar adina esfortzu ez dela egin uste du. Aurrekontu aurreratuak direla esan du, baina aurkako botoa eman behar dutela, eta ez oposizioan daudelako, baizik eta aurkeztutako emendakin gehienak kontuan hartu ez direlako.

### Emendakinaren bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoa hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak emendakinaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 2 (EB-Berdeak|Aralar)

Kontrako botoak: 7 (PNV 2, PSE-EE/PSOE 3, EA 2)

Abstentzioak: 1 (PP)

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena ez onartutzat aitortu du Alkateak.**

### Aurrekontu Proposamenaren bozketa

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:





Aldeko botoak: 7 (PNV 2, EA 2, PSE-EE/PSOE 3)  
Kontrako botoak: 3 (EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)  
Abstentzioak: 0

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkateak.**



Segidan, Aztergaien 4.puntuaren benn eman du Alkateak.

#### **4.- 2008 ekitaldirako Plantila Organika.**

##### Proposamena

Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. atalean, eta Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeko 20. atalean adierazten denez, Udalbatzarrak aurrekontua onartzen duenean, funtzionario, lan-legepeko langile finko eta aldi baterako langileez betetako lanpostu guztiak bertan ageri diren urteko Langile-zerrenda onartu behar du.

Aipaturiko araudia eta araudi horren inguruko aurrekin, azterketa eta gainontzeko ziurtagiriei jarraiki, 2008rako langile zerrenda prestatu dute Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Zerbitzuek, beti ere, aipaturiko xedapenek agindutakoa kontutan izanik.

Aldi berean, S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzak (Majori kiroldegia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) goian aipatu artikuluen arabera, 2008rako Plantila Organikoak prestatu ditu eta Plenorako Gaien Batzordeari aurkeztu dizkio.

Honen arabera, segidakoa onartzeko proposamena egiten da.

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- Onartzea Udal honetako Funtzionarioentzat gordetako lanpostu guztiak barne diren 2007ko ekitaldirako langile-zerrenda, akordio honekin batera doan eranskinean ageri dena.**

**Bigarrena.- S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo 2008ko ekitaldirako bakoitzeko (Majori kiroldegia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) Langile Zerrendak hasieran onartzea, lan-legepeko langileentzako gordetako lanpostuak barne, bidalitako ereduaren arabera.**

**Hirugarrena.- Toki-jaurbideari buruz indarrean dauden xedapenak biltzen dituen Testu Bateratuko 127. atalean xedatutakoaren arabera, onartutako agiri hori Gipuzkoako Aidizkari Ofizialean argitaratzea eta Eusko Jaurlaritzako dagokion sailera eta Gipuzkoako Foru Aldundira ale bana bidaltzea.**

**Laugarrena.- Agiri hau behin-betirako onartutzat jo, erreklamaziorik aurkezten ez bada behintzat.**



Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Leunda jna.

Bere taldearen botoa aurkakoa izango dela esan du, izan ere plantillan honako hauek sartu beharko lirateke, bere ustez:

Ingurumen teknikari 1  
Gazteriako teknikari 1  
Euskararako teknikari 1

#### Dubreuil jaunak

Plantilaren aldeko botoa emango duela esan du, enplegua sortzen duen proposamena delako bere ustez.

#### Maiza anderea

Euskara sailean 2 langile daudela esan du, horietako bat aldi baterakoa, eta bere ustez, biak izan beharko lirateke plantilakoak eta bien ala biak teknikari sailkapenekoak.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoani hitz egiteko aukera eman ondoren, Aikateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)  
Kontrako botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)  
Abstentzioak: 1 (PP)

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkateak.**



Segidan, Aztergaien 5.puntuaren beni eman du Alkateak.



## **5.- 2008rako lanpostuen zerrenda.**

### Proposamena

Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 atalak eta Funtzio Publikoari buruzko legeko 14.ak diotenari jarraiki, udalbatzarrari dagokio udaleko lanpostu guztien zerrenda egin eta onartzea, aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak barne direla, eta funtzionario, lan-legepeko langile finko eta aldi baterako langileenak zeintzuk dilen bereiztuta.

Arlo horri buruzko legedia kontutan izanik, aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak bilduz hartzen dituen zerrenda prestatu dute Idazkaritza eta Kontuhartzaitzako Zerbitzuek, Funtzio Publikoari buruzko Legeko 15. atalean agindutako ereduari jarraiki.

Horrez gain, Idazkanitza eta Kontuhartzaitzak egindako arauzko txostena irakurri, eta lanpostua eta espero diren ohiko sarrerekin lanpostuek duten portzentai-erlazioaren azterketaren bere ere eman da.

Hizkuntza Normalkuntzari buruzko 86/1997 Dekretuko 9. atalean adierazita agindutako prozeduraren izapidetza bukatu, eta Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeko 97.ak adierazitakoari jarraituz, hizkuntza eskakizunak derrigortasun egunak ere sartu dira lanpostu zerrendan.

Aldi berean, S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzak (Majori kiroldetgia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) goian aipatu artikuluen arabera, 2008rako lanpostu zerrendak prestatu ditu, aurrekontuan behar bezala hornituak.

Hau guztia ikusita, segidakoa onartzeko proposamena egiten da

### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2008rako udal honetako Lanpostu Zerrenda hasieran onartzea, aurrekontuan behar bezala hornitutako lanpostu guztiak sartuz, akordio honekin batera doan eranskinean ageri den bezala.**

**Bigarrena.- S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzeko (Majori kiroldetgia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) 2008rako ekitaidirako Lanpostu Zerrendak onartzea, aurrekontuan behar bezala hornituak.**

**Hirugarrena.- Toki-Jaurbideari buruz indarrean dauden xedapenak biltzen dituen Testu Bateratuko 127. atalean eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki, onartutako agiri hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Eusko Jaurlaritzako dagokion saliera eta Gipuzkoako Foru Aldundira ale bana bidaltzea.**

**Laugarrena.- Lanpostu Zerrendak behin-betirako onartutzat jo, erreklamaziorik aurkezten ez badira behintzat.**





Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dina:

Leunda jna.

Aurreko puntuan azaldutako arrazoi berberengatik aurkako botoa emango dutela esan du.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoani hitz egiteko aukena eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 2 (EB-Berdeak|Aralar)

Abstentzioak: 1 (PP)

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkateak.**



Segidan, aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak.

## **6.- 2007ko gastuak 2008ko aurrekontuan sartzeko eta kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu.**

### Proposamena

2007an aurrekontuan kontsignaziorik gabeko gastuak egin ziren partida batzutan.

2007eko urtea ixteari ekin aurretik, ahal zen neurrian, gaitz horiek konpontzeko ahalegina egin zen, eta Kontabilitatetik 79.174,1 5euroko fakturak kendu ziren.

2008ko otsailean Ogasun Delegazioan erabaki zen kreditu-gainezkatze guztiak finantzatzea, eta Delegazio bakoitzari bere arloan sorturiko gainezkatze guztien berri ematea, berriro gerta ez daitezen neurriak hartzeko.

Gipuzkoako Toki-Enakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34



artikuluaren arabera, 2008ko martxoaren 5an Plenorako Gaien Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onantzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari

AKORDJO PROIEKTUA.

**2007ko gastuak 2008ko aurrekontuan sartzea onartu, guztira 79.174,15 euro.**

**Gastu horiek finantzatzeko 2008ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 1. espedientea onartu, guztira 79.174,15 eurokoa, gastu horiek partzialki finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dina:

Alkate jna.

2007ko gastu batzuk 2008ko aurrekontuan sartzeko direla esan du.

Kontu-hartzaile jna.

Gasturen bat kendu beharko dela esan du, denetarako ez delako iristen.

Aurrekontuaren aplikazio metodikoa egiteko eskatu die agintariei.

#### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkateak.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

## **7.- IKENGU 05 S.L.rekin hitzarmena.**

### Proposamena

2007an aurrekontuan kontsignaziorik gabeko gastuak egin ziren partida batzutan.

2007eko urtea ixteari ekin aurretik, ahal zen neurrian, gainditze horiek konpontzeko ahalegina egin zen, eta Kontabilitatetik 79.174,1 5euroko fakturak kendu ziren.

2008ko otsailean Ogasun Delegazioan erabaki zen kreditu-gainezkatze guztiak finantzatzea, eta Delegazio bakoitzari bere arloan sorturiko gainezkatze guztien berri ematea, berriro gerta ez daitezen neurriak hartzeko.

Gipuzkoako Toki-Erakundeen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua arabera, 2008ko martxoaren 5an Plenorako Gaien Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari

AKORDIO PROIEKTUA.

**2007ko gastuak 2008ko aurrekontuan sartzea onartu, guztira 79.174,15 euro.**

**Gastu horiek finantzatzeko 2008ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 1. espedientea onartu, guztira 79.174,15 eurokoa, gastu horiek partzialki finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Idazkaria

Hitzarmenari "c" atala erasnteko proposamena egin nahi dela esan du, hirugarren estipulazioan eta honela idatzita:

"Epairen baten arabera edo dagokion ahalmena duen organoren baten ebazpenaren arabera Udalari Oianguren emakidan aurreikusitako ekintzak burutzea debekatuko balitzaioke, Udalak Ikengu 05 SLri konpentsatuko lioke, proiektua martxan jartzeko egindako gastu eta inbertsioen kopuruarekin" Hori gertatuko balitz, Udalak ez luke ezer ordainduko uzten den lukro gisa.

### Bozketa



Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketari egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 2, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, PP 1)

Aurkakoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Abstentzioak: 0

Dubreuil jaunak ez du botorik eman enpresari kideekin senidetasuna duelako.

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutaz jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaiari bosgarren berri eman du:

### **8.- Oiangurengi emakidariari hipotekarari baiemena**

#### Proposamena

2005eko otsailari 28ko Osoko Bilkurari hartutako erabakiari berri eman da, zeinari bidez IKENA 2001 SL enpresari esleitu zitzaion Oiangurengi aterpetxea eta eranskina ustiatzeko emakidari administratiboa. Enpresari horrekin 2005eko apirilari 29an sinatu zen kontratuak araututako da emakidari honi eta indarrean dago gaur egun.

Aldi berean, 2007ko abenduari 10eko Osoko Bilkurari erabakiari berri ematen da. Horren arabera, Ikengu 05 SL-ri emakidari traspasatzea baimendu zen, hori baita emakidari esleipen-hartzailea, eta, beraz, emakidari arautzen duten kontratuari eskubide eta betebeharrak subrogatuta.

Kontratu hori indarrean dagoen bitartean kontratuari aurreikusitako gabeko gatazkak sor litezkeela ikusita, gatazka honiek konpontzeko arauak jasoko dituen agiriari onartzea komeni da.

Agini hori hitzarmena jzango litzateke, Udalari, Ikengu 05 SL-ri (ustiapenari esleipen-hartzailea) eta Elkargi S.G.R-ri artekoa (Ikengu 05, SLri abalista).

2008ko irailari 5eko Plenorari Gaiari Batzordeari aldeko irizpenarekin, honari honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA.





\* Oianguren aterpetxea eta eranskina ustiatzeko emakidari buruzko kontratu administratiboan soi litezkeen gatazkak konpontzeko Hitzarmena onartu.

\* Alkatea eskubideratu akordio hau betetzeko behar diren agiri guztiak gauzatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 2, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, PP 1)

Aurkakoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Abstentzioak: 0

Dubreuil jaunak ez du botorik eman enpresako kideekin senidetasuna duelako.

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

#### **9.- Galde-eskaria.**

Mikel Leunda jaunak galdetu du ea zergatik aldatu den gaurko bilerako ordua.

Gainera, esan du, bi mozio aurkeztu zituela, bat abortuari buruzkoa eta bestea, Saharako autodeterminazioari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Ez da horren gaineko erantzunik jaso.

Alkate jaunak erantzun dio, bilerako ordua kide batzuk arazoak zituelako izan dela.





Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

